

SUTONDOAN GUATEMALAN IZAN DIREN HIRU SORALUZETAR GAZTE
KULTURA SAN ROKERA IGOERA EGINGO DA DOMEKA HONETAN

piipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 76. alea 2003ko urriaren 10a

***Zapatu arratsaldeak
Elgoibarren***

Eztabaida piztu da bailarako herrietan



Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean

GOL

GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE

Iragarlearen txokoan: Mendizabal okindegia

Kalebarren, 10 telefonoa 943 752091 / Baltegieta, 6 telefonoa 943 751399

“Gerra ostetik saltzen dogu ogixa Soraluzen”

Zeinek edo zeintzuk sortu zebeu okindegixa?

Gerra ostian Patricio Iraola eta Teresa Larrañagak sortu zebeu okindegixa.

Zenbat pertsonak lan egiten dozue?

11 pertsonak eitten dou lan, batzuk Arrasateko dendan dihardue lanian eta beste batzuk Soraluzen bertan egiten dogu lan.

Zeintzuk dira okin izatian alde onak eta txarrak.

Alde txarra, jai egunetan lan egin bihar izatia da eta alde ona, lan politta dala. Gustora egiten dogu lan.

Betiko ogixaz gain beste ogi motak ze arrera dauka gure herrixan?

Labe zahar eta berriko ogixak saltzen dittugu eta nahiz eta bixak oso arrera ona izan, Soraluzen behintzat labe zaharreko ogixa da gehixen saltzen doguna.



Okinan lanian teknologia berririk asko lagundu dau?

Uff ! asko lagundu dau. Lehen dana eskuz egin bihar zan eta oin baino ordu dexente gehixao egiten zan lanian. Gaur egunian teknologiak lana erreztu egin dau eta lan orduak murriztu egin dira.

Etorkizunera begira asmo edo proiektu berririk badaukazue?

Oin momentuan ez. Arrasateko eta Soraluzeko dendeekin nahikua daukagu momentuz.



Kultura ate joka

MAIALEN ELIZBURU

Eguneroko bizimodua, gizartea antolatzeke era eta munduaren ikuspegiaren ispilua da kultura. Herri baten izaeraren adierazbide bizia, sentipenak elkartrukatzeko ari. Belaunaldiz belaunaldi, forma ezberdinetan transmititzen eta aldatzen den ondaria.

Euskal Herrian, gure arbasoek utzitako arrastoak izan dira besteak beste, euskal kulturaren testigantzak. Kontakizun magikoen bitartez gureganaino heldu diren Mari, Basajaun, Lamia eta beste hainbat pertsonaia mitologikoak garai bateko bizitzaren esanahi betezko sinboloak dira. Kolektibo oso batek ama lurrarekiko zein euren artean zuten harremanaren emaitza dira pertsonaiok.

Emakumeak, bizi emaile izateagatik, garrantzi berezia zuen gizartearen oinordeko gara. Gertakari harrigarri bezain ederraren jabe zelako, emakumea prozesu natural oro azaltzeko irudi bilakatu zen. Anbotoko Mari dugu adibide garbia; kobazuloetan barrena, emakume zein animala itxuraz, mendi eta bailarak zaintzen zituen jainkosa da gure arbasoen sinbologia aberatsaren ikurra; berdintasun, elkarrekikotasun eta ama lurrarekiko lotura estuaren erakusgarria.

Baina historiak aurrera egin du eta egungo gizartea, boterezko harremanetan indibidualismoan eta naturaren neurrigabeko ustiakuntzan oinarritzen da. Hala ere, bagara bestelako baloretan sinisten dugunik. Bada, ohiturak berreskuratzearekin batera su berriak hauspotu

nahian, barreneko txinpartak kanporatzeke irrika biziz dagoenik. Edo, bere desio eta egonezinak, besteekin konpartitu nahi duenik. Hortarako; komunikatzeko, hartu emanerako, benetako garapenerako baliu behar dugu ultura. Maila pertsonal zein kolektiboan aberasteko. Errealitatea astintzeko, astinduaz goatzeko.

Eta plaentxiko errealitatera nator. Bertako egitasmoak gauzatu eta sustatu beharraren koordenadetan lur hartuaz. Alde batetik,, egun herrian existitzen diren kultur taldeei azpiegitura egokia eskeintzea, ezinbestekoa iruditzen zait: azterketa serio bat egin, talde guztion beharraz aztertu eta hauei erantzungo dien plana abiaraztea.

Bestetik, espresibide guztiei (antzerkia, dantza, literatura, musika...) lekua egin eta herritarren bilgune izango den kultur etxearen beharra. Plaentxiko panorama kulturala aberasteko balioko duen gunea, edozelango kultur ekimenak burutu ahal izateko gunea.

Eta gabezia bikoitz honi erantzuteko ardura zuzena udalarena da. Aurrera begira egiteko proiektuen zerrendatik, ajendako lehenetasun izatera pasa beharko litzakeen gaia hain zuzen. Hala ere, herriarentzako gune kulturala eraikitzeke bidean, guztiok izan behar dugu hitza. Ene asmo xumea da (ez da makala), ekinbiderrako mezulari izatea. Deia luzatzen dut beraz, kultur azpiegituren beharra somatzen dugunon artean... ekin diezaiogun astinaldiari ateak zabalduz kulturari!.

Telegrapak

Kaixo irakurle. Stop. nora doa gazterixia, ai ai ai!. Stop. zela edo ala, zapatutako migraziñuak gelditu bihar dira. Stop. (txikiteua ez, hori sanua da). Stop. ba jua deizezela mendiz!. Stop. orduan bai ibiliko dirala sano!. Stop. je, je, je!. Stop. hau da sanidadia hau. Stop Mendaroko eritetxerako autobusian juatia baino hobe behintzat. Stop. Kilometruetako autobusa berriz primeran. Stop. nahiz goizaldian erdixak inguru oilotu. Stop. eta unilateralki etxian gelditzia erabaki. Stop. eskerrikaske danori!. Stop. Berria-ko zozketari berriz tongo usaina dario. Stop. irabazle danak euskalzaliak dira. Stop. hummm!.
S t o p .
Ba badator!. Stop. baba dator. Stop. BABADATOR!. Stop. eta etortzen danian... Stop. gauzak asko aldatuko dira Plaentxian. Stop. puzkar-girua nagusituko da taberna guztietan. Stop. hurrengo alian BABADATORren bizitza pribatuari buruzko dana. Stop. beti bezala, Pil-pileanen eskutik!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.
Telefonoa 943 75 13 04
comunidades.kzgunea.net/PilPileanKulturaElkarte/EU
pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Eguzkiñe Aldazabal, Enara Agirre, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

Publizitatea: Xuban Catalan (943 75 13 04)

Logotioa: Jon Gabilondo
(943751304 tel.)

Banaketa: Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop.

Azala: Pablo Galarraga

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA



Erreportaia

Orain bi aste Elgoibarko tren geltokian i gaztek izandako istripuak, Elgoibarko larunbat arratsaldetako fenomenoaren inguruko eztabaida piztu du Elgoibarren inguruko herrietan. Larunbat arratsaldero bailara osoko herrietatik etorritako ehundaka gazte batzen dira Elgoibarko jai girora.

Zorion agurrak



Ugaitz Catalan
Urriak 17an 22 urte
Uf! hori dok aurrepexa mutil! zorte bizitzan! biharko!
ZORIONAK!!
Pil-pilean.



Domentx Uzin
Urriak 19 27 urte
Beste mundu baterako leihoa zara bai! ze jatorra!
ZORIONAK!!
Lagunen partetik!

Marina Alberdi
27 urte
Muxu asko eta segi oin arte bezin neska jatorra izaten! politori!
ZORIONAK!!
Lagunen partetik!




Amagoia Ostolaza
Urriak 1 27 urte
Aerobika egiten hasi zinanetik ederrago zare! muak!
ZORIONAK!!
Lagunen partetik!



Onar Muguruza
Urriak 15 27 urte
Aupa txapeldun! ze moduz ezkon bizitza! ondo eh!
ZORIONAK!!
Lagunen partetik!

Ainhara Juaristi
Urriak 16an 5 urte
ZORIONAK!!
Gure poxpolina ze haundixa egin dan...! Jarraitu beti bezala laztana. Onarren, Mikelen eta etxekuen partetik!



Markel Albisua
Urriak 10an 17 urte
Asko maitte zaittugu! muxu asko!
ZORIONAK!!
Etxekuak.



Julio Rascon eta Raquel Criado
Izan zaittezte zoriontsu elkarrekin! Ez zaittezte aldatu sekula eta segi oinarte bezin zoro! **ZORIONAK** rubia!! Julioeren lagunen partetik!

Merkatu Txikia



LANA

***Irratirako Soinu Teknikaria** behar da aldi baterako. Goiena Komunikazio Zerbitzuak. Nafarroa etorbidea 2, 20500 Arrasate. Azken eguna: urriaren 15a.
* **Administraria** behar da aldi baterako. Euskaraz jakitea, enpresa zientzietan tituluduna eta kontabilitatea ondo jakitea eskatzen da. Goiena K.Z. Azken eguna: urriaren 15a.
* **Ileapaindegian** lan egiteko pertsona bat behar da Arrasaten. 943771631.

LEHIAKETAK

***Arrigorriagako XVI.** Argazki Lehiaketa. Gaia eta teknika libreak. 3 Argazki 40 x 50 zm(gutxi gora behera) euskarri gogorrean. Azaroaren 7a aurretik. Helbidea: Arrigorriagako Kultura Etxea, Urgoiti ibilbidea, 8. 48480 Arrihorriaga. 94-6712361.

DENETARIK

* **Ohatzeak** (literak) salgai, Flex markakoak. Oso ondo daude. Oso merke. 943795764.
* **Bizikleta salgai.** Zortzi urtetik beherako umeentzat, la berria. 60 Euro. 680720552.
* **Motozerra elektrikoa salgai.** Black & Decker markakoa. Estreinatua gabea. 100 Euro. 943766105.
* **Ordenagailua** salgai, AMD XP 2.0. LG markakoa. 17 Pulgagadako monitorea. 40 GBko disko gogorra. DVDA eta berriro grabatzekoa eta guzti. la berria (sei hilabete). Bi urteko bermea. Telefonoa: 686224438.

Hildakoak

Jesus Ibarbia Larrañaga
Eustakio Maiztegi Gantxegi

Jaiotakoak

Iraia De los Santos Perez

Ezkonduak

Gorka Zubiaurre eta
Arantzazu Peñalba

Agenda

NAFARROA OINEZ (Autobusa)
Irunberrira.

Urriaren 19an. Izena emateko: Pil-pilean, Gila, Iratxo eta Arrano tabernetan.
Irteera: Gilatik 8:15-etan.

Gutunak

Kaixo bikote!

Hau da marka hau!. Bai, badira 2 urte dirpertsio madarikatuak gure artetik eraman zintuztela eta zuen hutsunea nabarixa da. Bai, nortasuna daukan herrixa garelako tokau jaku hutsune honekin bizitzea.

Soraluzeko etxeratuok gure barreneko mina hemen agertu nahi dogu. Mina benetan gogorra delako.

Zuek bezalako bi lagun galtzea gogorra dealko.

Asetburuo, ehunka senide eta lagun bidean jartzea, milaka kilometro egitea gogorra delako.

Bidean hamaika istripu, kontrol eta estualdirekin topo egitea gogorra delako.

Espetxean senide bat egoera oso larrian izatea, edo atzerrian -ikusit be ezin dozula egin- oso gogorra delako.

Edo senide bat espetxean edo atzerrian gaixotasunak jota izatea, edo espetxee

GERNIKAKO AZOKARA IRTEERA
Itxaropena Elkartetik
Urriaren 27an

Izena Itxarpenan eman behar da.

1959an JAIOTAKOEN
BAZKARIA Urriaren 25ean
Izena emateko telefonoa, 943751581.

tan presoak jipoitzea eta trasladoak egitea, edo gose greban egotea...

Horrela, egunro bizitzea oso gogorra delako.

Bai bikote! Hau gogorra da, borroka gogorra da. Bina lasai, hauek ez dira etsipen hitzak, ez. Gogortasun horrek geu gogrtzen gaitu eta aurrera jarraituko dogu gure senide eta lagunekin batera. Elkarrekin pausoak ematen. Eta gure etxeko berotasuna eroango dogu kartzelara eta atzerria. Badakigu, oin-diok une latz ugari izango dittugula. Azken 2 urte honetan, dirpertsioak beste bi lagun hil ditte eta hau ez da bukatu. Baina aurrera egingo dogu, askatsunaren bidea, horretaz seguru egon.

Beno bikote, badakizue, adiorik ez, gero arte baizik.

Soraluzeko Etxerat



Barra kargadore automatikoak
eta makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5

Tfnoa 943 75 18 91

Faxa 943 75 24 58

E - maila: etxehun@telex.es

etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE

Gipuzkoa



Zer irizten dotsazu?

Orain bi aste, larunbat arratsaldean Elgoibarren gertatu zen tren istripuak hautsak harrotu ditu eta bailarako herri gehinetan eztabaida piztu da fenomeno honen inguruan. Soraluzetik ere gazte asko joaten da larunbatetan Elgoibar aldera eta jendearen eritzia jaso nahi izan dugu.

Zer pentzaten dozu gaztiak Elgoibarrera juatian inguruan?



Ainhoa Belazkez
29 urte Umezaina
Normala iruditzen jata horrenbeste gazte batzia, modan dagan kontua da eta... leikena da denboriakin beste herriren batera mugitzia oin Elgoibarren daguana, nahiz eta gero eta urrutirautik juaten dan jentia gaur egunian. Neri etxata txarto iruditzen, eta pentsatzen dot edadian kontua dala.



Garikoitz Del Barrio
17 urte Ikaslia
Neri ondo iruditzen jata, gaztiok zapatu arratzaldietan batziana, nahiz eta botelloillen ondorixoz kalian sortzen dan zikinkerixia etxatan gustatzen. Badago kontrol barik ibiltzen dan jentia, baina kontu hortan norberak norbere burua zaindu bihar dau eta inguru-kuena zaintzen lagundu.



Koxme Kortabarria
44 urte Mekanikua.
Horren jente gaztia hola ibiltzia ez jata ondo iruditzen baina hori sahiestia ez da lan errea. Alkoholik ez saltzia izan leike irtenbidietako bat, igual hola jentia jatuari lagako dotsa edo kalia txukunao egongo lirake behintzat.



Junkal Ariznabarreta
38 urte Irakaslia
Pentsatzen dot alternaibaren bat egongo dala zapatu arratsaldetarako. Elgoibarrera jua biharrian beste nunbaitera juateko eta beste zerbaitx egiteko. Ez naiz sekula egon han baina badakit jente oso gaztia egoten dala, gaztiegixa.



Mireia Sudupe
15 urte Ikaslia
Nere ustetan trena bezelako garraioetan jente larregi ibiltzen da, beti bete beteta juaten da ordu jakin batzuetan. Drogak mugitzen dirala be ikusten da, era ezberdinetakuak. Baina hara juatian arrazoi nagusixa jente berrixa ezagutzia da.



Unai Soraluze
17 urte Ikaslia
Gero eta jente gehixao juaten da Elgoibarrera. Gero eta gaztiagua gainera eta gero eta gutxiu kontrolatzen diranak. Tabernak toperaino egoten dira. Kaleko zikinkerixia be ez dao ondo, botelloia egiten dabenak zakarrak zakarrontzira bota biharko littuzkie.

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta pintxo goxo goxuak !!



Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza Jabe Elkarteak Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk. 20590 Soraluze

Tlfonoa: 943 75 17 82 GIPUZKOA

Arraikuako etxeentarako sarbidea



Udalak Arraikua kaleko 1,2 eta 3. zki.ko etxebizitzetara sarbidea antolatzeko proiektua egiteko eskatu dio Sestra etxeari, 8.120 euroko aurrekontuz. Ondorengo asteetan Udaleko teknikariek batera, auzoko bizilagunekin hitz egingo dute erabakirik egokienak hartzeko.

Trenbidean ibiltzeko debekua Bestalde irailaren 29tik itxita dagoen Olatik Estaziora bitarteko trenbide zatian, zuhaitzak eta sastrakak kentzeko lanak hasita daude dagoeneko. Lanek arduradunek adierazi digutenez, jendeak trenbidera sartzen jarraitzen du nahiz eta erabat debekatua dagoen.



Irailaren 29an egin zen Gobernu Batzordean, 9.744 euroko zenbatekoz, Santa Ana kaleko sarbidea hobetzeko proiektua erredaktatzeko erabakia hartu zuen Udalak.

Proiektuak Santa Anako kalearen gaur eguneko zabalera mantenduko du, Uzkatel tailerren inguruko gunean ezik, puntu honetan bidea zabaldu beharko da eta. Santa Ana kaleak norabide bakarrek bidea izango du eta espalo bakarra. Honekin baera, inguruko azpiegiturak berriztea ere aurrikusita dago (ur hornikuntza, drenajea, gasa, Iberdrola, Euskaltel, argiztatze publikoa eta telefono sarea).

Udala baserritarrekin bilduko da urrian

Udaleko Nekazaritza eta Ingurumeneko batzordeak deituta, urriaren 28an herriko baserritarren eskakizun eta iradokizunak ezagutzeko bilera egingo da udaletxean. Bileraren helburua, baserritarren behar nagusiak ezagutzea da datorren urteko aurrekontuak behar horietara bideratzeko.

Berriaren zozketan saritutakoen zerrenda

Irailaren 22an, astelehenean egin zen Berria-ren aldeko diru bilketan saldutako errifren zozketa. Guztira 20 zenbaki izan ziren sarituak. Hauek izan dira zortedunak: harpidetzetan: Juanito Unamuno, Jesus Unamuno, Asier laskurain, Eusko Alkartasuna, Nerea Uzin, Ander Elizburu, Mari Karmen Ortueta, Maite Larrañaga, Jon Basauri eta Karlos Oregi, eta kamisetetan: Oier Zubizarreta, Endika Maiztegi, Jose Luis Arizaga, Lan Banaketa SL, Gaztelupeko Hotsak, Kontsumo Koop., San Andres Elkarte, Arrate de Albiz, Aidor Aizpuru eta LAB.

Erresidentzia baimena eskatzeko zerbitzua

Udalak Jaurlaritzarekin sinatutako hitzarmenari esker, dagoeneko, herriko etorkinek Jaurlaritzak martxan jarri duen Etorkinendako Arreta Juridikorako Zerbitzua erabiltzeko aukera izango dute Udaletik. Zerbitzu honek erresidentzia baimen eskaera egiteko aukera ematen du.

Dirulaguntza Argentinako eskolari

Udaleko Gizarte-Ongizate batzordearen erabakiz, 2.404 euroko dirulaguntza bideratuko Buenos Airesko Adingabekoen Auzitegiaren mende dagoen ikastetxe baterako ordenagailuak erosteko.

14 Lagun AEK Euskaltegian



AEK-ko izen emateko kanpaina amaitu ostean, 15 lagun izan dira aurten euskara ikasteko izena eman dutenak, joan zen urteko ikasle kopuru bera osatuz.

Aurten ere Irati Trebiño izango dute irakasle eta 14:30etatik 16:30etara eta 19:30etatik 21:30etara emango dira eskolak. Asko ikasi!



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

ARRANO
tabernia

Telefona 75 24 09

“Giro euskalduna eta sanua”

ETORRI ETA GOZATU



EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK
etxera

Bergararrak Errekaldeko etxeetara



Errekaldeko etxebizitzak saltzearen ardura duen Provasna enpresakoek adierazi digutenez, soraluzetarrak baino gehiago dira Errekaldeko etxe berrietako bat erosi duten bergararrak. Bergarrez gain, Aretxabaleta eta Eibarko jendeak ere erosi omen ditu etxak. Guztira salgai jarri diren 56 apartamentuetatik 4 bakarrik gelditzen dira salgai (kanpoko garaje eta lokalez gain) eta merkeenak 15 milloi (pezeta) balio ditu.. Multzo osoan saldutako apartamenturik merkeenak 12 miloi inguruko prezioa izan omen du eta garestienak berriz 30 miliokoa.. Prezioak omen dira inguruko herrietatik jendea erakartzeko arrazoi nagusia, beste herrietakoak baino baxuagoak omen dira eta.

Mendarorako autobusarekin kexu



Azken asteetan, Sorluzetik Mendaroko Eritetxera bidea egiten duen zerbitzuarekiko kexa aurkeztu dute erabiltzaile askok Udaletxean. Dirudenez, ibilbide hau egitearen ardura duen Euskotren enpresak, autobusaren ohiko ibilbidea aldatu du, lehenago Sorluzetik Mendarora zuzenean egiten zuen ibilbidea luzatuz, orain Elgoibarren barrena ere sartzen da eta. Sorluzeko Udalak eta erabiltzaileek ez dute aurrez aldaketa horren berririk jaso eta horren aurrean, Udalak Euskotreni zerbitzua lehen zegoen baldintzetan berrezartzeko eskatuko dio.

Kale izenak euskaratuko ditu Udalak

Oraindela bi urte Udalak onartutako Euskararen Ordenantza jasotakoa betez, Udaleko Euskara Batzordeak herriko kaleen izendegia euskaratzeko lanari ekingo dio laster. Lan hori egiteko, Euskaltzaindiaren gomendioak eta herritarren iradokizunak ere hartuko ditu aintzat. Herritarren iradokizunak jasotzeko etxek etxe banatuko da informazioa.



Larreategiko zubibidea ez da botako

Foru Aldundiko arduradunek adierazi dutenez, hainbat atzerapenen ostean abenduan zabalduko dute autopistaren Eibar eta Bergara arteko zatia. Larreategiko zubibide kaltetuari dagokionez, berria egiteko ez dutela botako erabaki dutela adierazi dute.

Transformadore zaharra ahaztu dute



Herritar batek salatu duenez, Karakateko "argindar zutoinaren transformadorea aldatu eta zaharra eraman gabe laga dute Iberdrolakoek". Udaltzaingoak jo eman omen dio Iberdrolari honen berri baina oraindik han jarraitzen du transformadoreak..

Debako haurrak igeri egitera



Azken hilabete honetan, Debako Luzaro Ikastolako neska mutikoak izan dira herriko igerilekuan. Deban igerilekurik ez dutenez beste herri batzuetara joan behar izaten du igeriketa saioak egitera. Itsasoko hotzegia nonbait.

Kilometroak 2003



60 Euskalzale joan ziren joan ziren, pasa den igandean San Benito ikastolari laguntzeko Lazkaon egin zen Kilometroak 2003 jaialdira.. Euskrz 2zi ny dugu!

Elgoibarko larunbat arratsaldeak

Orain bi aste Elgoibarko tren geltokian bi gaztek izandako istripuak, Elgoibarko larunbat arratsaldetako fenomenoaren inguruko eztabaida piztu du Elgoibarren inguruko herrietan. Larunbat arratsaldero bailara osoko herrietatik etorritako ehundaka gazte batzen dira Elgoibarko jai girora. Jai giro horretan ehundaka gaztek alkoholarekin eta gainontzeko drogekin duten harreman desegokia da auzitan dagoen gai nagusia. Soraluzen ere piztu da eztabaida eta eritzi ezberdinak jaso nahi izan ditugu.

Arazotzat jo den fenomeno honen inguruan argi pixkat egin nahian, gazteen inguruan zeresana duten herriko eragile ezberdinen eritziak jaso ditugu. Besteak beste, gazteak, tabernariak, gurasoak, irakasleak eta erakunde publikoen eritzia ezagutu nahi izan dugu, eragile hauek ardura berezia dutelakoan gazteen heziketa eta bizimoduari dagokionez. Argi geratu da garrantzi handiko eztabaida dela eta lan handia dagoela egiteko.

Fenomeno konplexua eta zaharra

Jaso ditugun eritzien arabera, Elgoibarren larunbat arratsaldetan gertatzen den gazte masifikazioa eta askoren neurrigabeko alkohol eta droga kontsumoa ez da fenomeno berria. Alderantziz, "urtetan eta urtetan hazten joan den joera bat da eta Euskal Herriko beste eremu askotan ere ematen dena eta beraz arazoa ez da Elgoibarren bakarrik zentratu behar. Gaurko gizarteak drogen kontsumoarekiko eta aisialdiarekiko duen noraezaren ondorio da gazteekin gertatzen ari dena. Besteak beste, gazteak behar bezala hezitzea, gurasoekiko komunikazioa indartzea, alternatibak eskeintzea, eta batez ere, gizarteak alkoholarekiko duen jarrera bikoitzarekiko autokritika serio bat egitea omen dira arazo honi konponbidea jartzeko egin behar nagusiak".

Gazteak kezkatuta

Gazteen eritzia jaso nahian, 15 eta 17 urte bitarteko dozena bat gazterekin hitz egin dugu, nahiz eta ez diguten argazkirik ateratzen utzi (eztabaidak hartu duen neurritz kanpoko intentsitatearen adierazgarri).

Gazteen artean gaiaren inguruan "gehiegi exageratu" denaren eritzia nagusitzen da; "danok ez gara lurrian zihar



Larunbat arratsaldero bailara osoko herrietatik etorritako gazteak elkartzten dira.

"Askatasun gehixen dakenak izaten dira lasaixenak eta gehixen kontrolatzen dabenak".

ibiltzen mozkortuta, jente asko dagan tokixan danetik dago! gainera ez gara gaztiak bakarrik edaten dogunak! nagusixak zer egiten dabe ba? ". Hala ere, bat datoz aitortzerakoan, "drogen kontsumoa haundixa dala eta gero eta jentia gaztiago hasten dala eraten egixa da" la eta hor arazo bat dagoela.

Gazteen esanetan, Elgoibarrera joateko arrazoi nagusia jende berria ezagutzeko eta ondo pasatzeko gogoia da, "inguruko herri danetatik juaten dira! zer

egingo dogu bestela? herrixan geratu? hemen ez dao ezer!". Gurasoekiko harremanean, oso gutxi dira alkohol eta droga kontsumoaz naturaltasunez hitz egiten dutenak, gehienek "ezeizu edan!" moduko esaldiak eta errietak bakarrik entzuten dituztela adierazi digute. Euren usteetan, debeku jarrerak kontrako eragina besterik ez du lortzen eta presio horrek eragin handiagoa izaten duela txarrerako, hoberako baino "askatasun gehixao dakenak izaten dira lasaixenak eta gehixen kontrolatzen dabenak. Bestela, gizurra esatia da bidia eta hori zurrumbilo bat da".

Informazioa nahiko eskura dutela diote gehienek, "hitzaldixak, liburuak...". Drogak neurrian hartu ezkeron onuragarriak eta beharrezkoak direnaren ustekoak dira "ardua egunero edati ona dala diñue!".

ELIZpE



h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea
9 4 3 7 5 2 5 6 7
20590 Soraluze



Lakuesta

Optika 

Ikusmen arazoaren frogak eta argibideak

Argazkiak errebelatzen ditugu

Santa Ana, 22 C- behea
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 30 59



Paulo Argarate
Institutuko Zuzendaria

“Kontsumismo basati horrekiko kritiko izaten erakutsi behar die eskolak”.

Nere ustez lege aldetik, Elgoibarren gertatzen dana kontraesan bat da. Legez 18 urtetik beherakueri ezin zaie alkoholik saldu baina gero ez da ezer egiten hori eragozteko.

Etika eta moral aldetik, gai honen inguruan hipokresia haundiz jokutzen degu. Geure begien aurrean mozkortzen dira modu basatian sarritan. Denok dakigu horren atzetik datozela is-tripu larri asko eta ez ikusiarena egiten degu. Gai honetan helduok, salduta dauzkagu gaztetxoak.

Maila politikotik erabat lotsagarria dela uste dut honi erantzunik ez ematea. Elgoibarko Udalak ez ikusiarena egitea erabat eskandalagarria iruditzen zait. Tabernetan gaztetxoei alkohola saltzen uztea, jakinda gaztetxo horiek mozkortu eta motorrean edo autoan sartuko direla... Nere eritziz, tabernariak lovi bat osatzen dute eta Elgoibarko Udalak interes horren esanera jakatu du orainartean. Dena dela, gizartearen islada da, alkoholaren aurrean ez daukagu kezkarik.

Eskolari dagokionez, askoz gehiago egin beharko genuke. Informazioa falta da alkoholak gaztetxoen gorputzean duen eraginaz. Eskolak erakutsi egin behar die gizartearen zabaldua dagoen kontsumismo basati horrekiko kritikoa izaten, alkohola ere droga dela eta onuragarria izan daitekeela bere neurrian kontsumituta. Baina inola ere ez

adin horretan, gibela egin gabe dagoela. Pertsonak heldutasun psikologiko minimo bat behar du drogak kontsumitzeko orduan eta nerabezarora eta da horretarako adina.

Gurasoek ere zeresan handia dute gai honetan. Familiatan gurasoek seme alabekin hitz egin behar dute zabalatasunez. Ez du balio ezetz esateak. Agian, azaldu egin behar zaie “edan daiteke... baina modu honetan, oraindik ez...”. Hitz egin behar da.

Gaur egunean nortasun handia behar da edateari edo drogei ezetz esan eta bidea egiteko.



Nerea Perez
Gazteria Zinegotzia

“askotan gazteriari ez zaio behar besteko harretarik eskeintzen”.

Gaur egun, Udal guztietan daukagun arazoetako bat, gazteria politika da. batzuetan ez da asmatzen eskeintzen diren ekintzekin eta beste batzuetan (askotan) gazteriari ez zaio benetako harretarik jartzen. Askoren ustez, guk gaztiok, lau tragorekin eta bi kontzerturekin ez daukagu zertan gehiago eskatu eta ez dira konturatzen gehixenok horrela pasatzen ditugula astebukaera asko eta asko gure herrian edo alboko beste herri batzuetan, beste ekitaldi motarik ez dabelako jartzen.

Honi buelta emateko, Jaurlaritzak plan berri bat aurrera eramatea erabaki du eta horixe bera ari gara aztertzen. Oraindik ez dakit posible izango den baina horretan gabiltza. Eskeintza berri batzuen bila.



Gregorio Uribe
Gurasoa eta tabernaria

“Berba egin bihar da gai danetaz taburik barik, drogetaz bebai!”.

Guraso naizen aldetik nere uste-tan etxetik zuzentzia eta informatzia da garrantzitsuena. Seme alaberi nora juaten diran eta zeinekin ibiltzen diran galdetu bihar jakue beti, zer egiten daben jakitiaz arduratu. Ez da euki bihar bildurrik eta berba egin bihar da gai danetaz taburik barik, drogetaz bebai. Gaur egun informaziño asko dago gai guztietan eta informaziño hori ezagutu eta erabili egin bihar da.

Larunbat arratsaldetan Elgoibarrera juatia ez jata harritzen. Herri honetan 12-19 urte bitarteko gaztiendako ez dago ezer, tabernak, alkohola, zigarruak... horixe bakarrik. Ez dago ez zine, ez egoteko leku, ez joku eta ez ezer, eta horretan Udaletxiak dauka ardura haundixena. Etxiak egitia ondo dago baina beste gauza batzuk be badare egiteko.

Tabernari naizen aldetik, nik bi alaba gazte daukat eta saiatzen naiz gure tabernan 18 urtetik beherakueri edaririk ez saltzen eta uste dot hala izaten dala. Oso geizki pentzatzten jata adin txikikueri alkohola saltzia bai Elgoibarren eta bai hemen. Danok daukagu senide gaztetxoren bat familixan.

Ni taberna baten hezi naiz eta gai honetaz badakit zeozer, esperientzia propioz.

FER.

S.A.
Industriak

Esulanetarako tresnak

Industrialdea, 17 - 20590 Soraluze
Telefonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es

TXOKO
KAFETEGIA



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22 behean. telf: 943751789

Karidadeko Bentaren lehen diskoa



Joan den astean aurkeztu zuen Karidadeko Benta taldeak izen bereko lehen diskoa. Bertan, helikoia eta biolina joz parte hartu Domentx Uzin so-

raluzetar Musikariak. "Garaiko bertso eta koplen ondoan, kultura eta estilo ezberdinetako soinuak naturaltasunez elkartzen dituen musika" da.

Zirikadak eta Eztenkadak berriz kalean



Asteartean aurkeztu zuten Eibarrren, 1960ko hamarkadan Juan San Martinek idatzi zituen Zirikadak eta Eztenkadak liburuen berrargitalpena. Pil-pileanek Gaztañerre azokan jarriko ditu salgai Eibar eta Soraluzeko kontakizun umoretsuak biltzen dituzten bi liburuok.

Gaztañerretako bilera



Asteazkenean Gaztañerretako Baba Txapelketa, Babajana eta dantzaldia antolatzeko bilera egin zuten 10 bat lagunek kiroldegian.

Domekan santuaren igoera

Domeka honetan egingo da urtero moduan san Rokere n igoera ermitara. Ibilaldia goizeko 7:30etan aterako da.



LAUDIN

PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g tf: 943752150
138 Postakutxa Faxa: 943752118

SORALUZE

EDURTZA kafetegia

Taberna eta jatetxe zerbitzua

**Eguneroko
menua eta
pintxoak**

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

Etxabe Harategia



Euskal
txahalkia
Bildotsa

Merkatu Plaza 6-7 Postuak Telef. 943752375

Belarrak

**Loradenda
eta belardenda**

*Erosketak etxera
eramango dizkizugu*

Telf. 943 75 30 11



Arianne, Eider eta Maria mendira egindako irteeretako batean.

Hiru hilabete Guatemalan

“Goizeko 8.00etatik 13.00ak arte egiten genduan lan umieri klasiak emoten. Pobrezia asko dago, baina zoritxarrez ixa ezinezkoa gertauko jakue zulo horretatik urten ahal izatia.”

Eider Varela, Maria Azkona eta Arianne Unamuno. Maletak egin eta Ameriketara. Holaxe jua ziran, diruz pobre baina bihotzez aberats darenari lagundu eta beste bizimodu bat ezagutzeko asmuakin. Hiru hilabete inguru Guatemala partian pasau ostian, hiru plazentziar honek oindioan ez dira lurrreratu. Gaztetxuak dira, 20-21 urte besterik ez dauzke, baina euron bizitzetan garrantzia haundixa euki daben esperientzia ahaztezina bizi izan dabela kontatu doskue.

Zegaittik Guatemala?

Arianne: Egun baten, ikusi genduan orri batzuk Mariak eta bixok unibertsitateko iragarki-taulan eta bertan agertzen zan proiektu bat zeguala Xelan, Guatemalako bigarren hiririk haundinian, oinarritzko hezkuntzako eskola bat aurrera etartzeko, eta horretarako boluntarixuak bihar ziala.

Maria: Baina ez zan izan gobernu kanpoko erakunde baten bittartez. Harremanetan jarri ginan proiektuan sartuta zeguan gizon euskaldun batekin eta berak azaldu zoskun zer egiten zebizen eta ze egoeratan zeren... Eta interesgarria iritzi zotsagunez, ba... guazen! Esan genduan. Ta Eider be animau zan.

Zein izan da egin dozuen lana?

Eider: Irakasle izan gara hirurok, bakoitza maila eta irakasgai desberdinetan. Astelehenetik barixakura, goizeko

DIPOSITIBA EMANALDIA

Datorren ostiralean, urriaren 17an, arratsaldeko 19:00etan Guatemalaren inguruko diapositiba emanaldia eta galdera erantzunen saioa eskeiniko dute Kiroldegiko Erakusketa Aretoan.

8retatik arratsaldeko 13ak arte egiten genduan lan umieri eskolak emoten.

Arianne: eskolak emoten saiatzen; nahiko gogorra zan-eta normaltasunez eskolak emotia. Zegaittik? Arrazoi askogaittik: gela bakoitzian edade eta maila desberdineko umiak zerelako, ume batzuk geldu eta adi eukitzen nahiko edo oso zaila izaten zalako, eskolia bera nahiko geizki antolatuta zegualako ...

Maria: Izen be, Guatemalako gizartian hezkuntzak, osasunak moduan, ez dauka garrantzia haundirik. Orokorrian, zoritxarrez oindio, ez da lehentasuna gobernuarendako.

Zelakua da hango bizimodua?

Maria: Batez be nekazaritaztik bizi da jentia; artua dago asko, eta berdura ta frutak be bai. Baina oso gogorra da bizimodua han; dirua badago baina %10an eskuetan. Gainontzekuak ezebe-zakin bizi dira.

Eider: han pobriak oso pobriak dia, hemenguak baino askoz gehixao. Baina

txarrena da, ixa ezinezkoa gertauko jakuela zulo horretatik urten ahal izatia.

Arianne: Horretxegaittik, ahal dabena Estatu Batuetara alde egiten dau. Urte batzuk lan egin, diru pixkat batu, eta buelta egiten dira gehixenak. Ez dira ez inori lana kentzera juaten, bizi-rauteko modu bakarrenetakua da, gobernuak ez dau eta ezer egiten egoeria konpontzeko.

Zelakua da bertako jentia?

Eider: oso jende alaixa eta atsegina da. Danak agurtzen zaittue, autobusian ondokuakin berba egiten dozu beti, etxeko atiak zabaltzen dotsuez pixkat eza-gutu ahala... Egoera kaxkarra dake, baina oso jende ona da.

Maria: eskuzabalak eta justuak be badia. Ez dakanari, nahiz eta eurok gitxi euki, beti emoten dotse zeoze. Umiak be holakotxiak dira han.

Berriro juateko gogorik bai?

Arianne: ointxe bertan! Oso gustora egon gara. Askok ikasten da holako bidai baten. Gauza askotaz konturatzen zara, eta bizimodu eta pentsakera desberdina ezagutzen dozuz.

Eider: Gainera umiekin... engantxau egiten dabe. Oso berezixak dira. Ez daukat dudarik berriro bueltauko garana. Herrialde zoragarria da.

Maria: Danori gomendatzen dotsuegu bertara juatia. Ez zinakie damutuko.

Pelota

Soraluzek lehen partidua galdu du klubaren arteko txapelketan

Iker Garziak eta Aitor Atxotegik osatzen duten Soraluzeko kadete mailako bikoteak, Gipuzkoako Klubaren Arteko Txapelketako lehen partidua galdu zuen joan zen ostiralean. Soraluzek 22 eta 6 galdu zuen Alkizako Erniepe klubaren kontra. Hori bai, aspaldiko partez pelotaz gozatzeko aukera izan zen herriko frontoian. Gogoratzekoa baita, 2 urtean frontoia itxita egon ostean, herriko pelotaririk guztiak kanpoko klubetara joan direla. Esaterako, Iñaki Jauregi bera Añorgako klubarekin ari da parte hartzen txapelketa honetan bertan.

Txurruka DV Txapelketan Erle Txurrukak DV Txapelketan parte hartuko du eta azaroaren 19an jokatu du lehen partidua Ametzetan Errarte Eskoriatzarrarekin batera.



Arrieta min hartuta Jon Arrieta Elgetako klubarekin ari da jokatzeko baina orain min hartuta dago.

Laskurain han eta hemen Aritz Lakurainek Burgosen eta Tolosan jokatu dituzte bere azken bi partidua. Burgosen galdu baina Tolosan irabaztea lortu zuen.

Futbola

Liga hasiera kaxkarra Sorak



Denboraldi hasiera ez da bat ere ona izan Soraluze Futbol Taldea osatzen duten hiru taldeentzat.

Kadeteek hiru partidu jokatu ostean puntu bakarra lortu dute eta sailkapenean azkenurreko postuan aurkitzen dira. Azken partidua Elgoibarren aurka jokatu zuten Ezozin eta 7 eta 1 galdu zuten. Datorren partidua Zestean jokatu dute.

Jubenilek ere lau partidu jokatu ostean sailkapeneko azkenurreko postuan aurkitzen dira hiru puntuekin. Azken partidua Ezozin jokatu zuten Billaonaren aurka eta 3 eta 4-ko emaitza estuaz galdu zuten. Astebukaera hontan Eibartarrak taldearen aurka jokatu dute Umbe-n eta hiru puntuak lortzea garrantzitsua izango da taldearen animoak bertan behera ez joateko.

Regionalaren hasiera ez da txarra izan, jokatu dituen hiru partidutatik bi berdindu ditu eta bat galdu du eta lortu dituen bi puntuekin sailkapeneko 13. Postuan aurkitzen dira. Datorren partidua Bergara K.E.-ren aurka jokatu dute Ezozin eta bertan hiru puntuak lortzen baldin badituzte sailkapeneko 8. Postura igo daitezke.

Mendizaletasuna

Kalamua- Arrate-San Migel irteera

Domeka hontan urriak 12 Soraluzeko Mendi Elkartek Eibar eta Elgoibar aldeko mendietara antolatu du irteera. Eibarko Kalamua mendia igo ostean, Arratetik zehar Elgoibarko San Migel auzoraino joango dira.

Aerobika

Aukera zabala

Eider eta Marianek zuzendutako Aerobik taldeak eskolen ordutegia zehaztu du. Honakoa da:

- Aerobik-a. Goizeko txanda: asteazken eta ostegunetan 9etatik 10etara. Arratsaldeko txanda: astelehene eta asteazkenetan 14:30etatik 15:30etara.

- STEP-a. Goizeko txanda: astelehene eta ostiralean 9etatik 10etara. Arratsaldeko txanda: astearte eta ostegunetan 19etatik 20etara edo astelehene, astearte eta ostegunetan 20etatik 21etara.

- Mantentzea. Goizeko txanda: astearte eta ostegunetan 9:30etatik 10:30etara. Arratsaldeko txanda: astelehene eta asteazkenetan 14:30etatik 15:30etara edo astearte eta ostegunetan 18etatik 19etara (?).

- Zirkuitoa. Asteazkenetan 20etatik 21etara.

Eskolak Batzokiko frontoian emanango dira.

Igerilekua

Jasogailu hidraulikoa jarri dute igerilekuan

Aste honetan bertan, mugikortasun mugatua duten pertsonen igerilekuan sartzeko aukera erreztuko dien jasogailu hidraulikoa jarri dute igerilekuan.



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren, 10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE

Instalaciones Kalebarren S.L.



GAS INSTALAKUNTZAK
ETA PROIEKTUAK
KALEFAKZIOA ETA AIRE EGOKITUA
ITURGINTZA OROKORREAN

20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES

Jose Javier Soba

“ emakumez guardia zibilaren aurrian korrika amaittu neban ”

Zapatu arratsaldea da, eguraldi kaxkarra egiten du. Kalean ez dabil inor. Jubilatuetara jo dugu urteek emandako jakinduria herriaren aurrean zabaltzeko prest legokeen baten bila. Sartu gara ltxaropenan eta Soba-rekin egin dugu topo. 37 urteko plaentxiar ezaguna eta hainbat eta hainbat komeriaren protagonista. Erantzun motzak baina mamitsuak eman dizkigu. Ez da kokildu “harrapatzeko” egin omen dizkiogun galderekin eta egi “borobil borobilak” bota ditu.

Izena, abizena, edadia eta lanbidea

Jose Javier Soba, 37 urte eta kamare-roa.

Zelakua da Soba?

Pertsona ona naiz eta asko gustatzen jata jentia nerekin gustora ibiltzia.

Batzutan "mala leche" kua.

Abestixa, tokixa, animalixa eta koloria.

Abesti bat "Si tu me dices ven", toki bat Karakate, animalixa txakurra eta koloria urdina.

Zer da bene benetako egixa?

Jangoikorik ez daguala.

Zer ezin dozu jasan?

Injustizia eta gizurrak ezin ditut jasan.

Manixaren bat?

Desordena, orden baten.

Bapo geratzeko bazkarixa?

Baba gorrixak.

Zela ikusten dozu zure burua hemendik 20 urtera?

Espero dot alderdi guztietan gaur naguan baino hobeto egotia eta nerekin dabizen pertsona guztiak zoriontsuak izatia.

Aholkurik onena?

Bakoitza dan modukua izan deila.

Ze egingo zinue miloi batekin?

Bah! Gauza asko.....

Beti gogoratuko dozun eguna?

Egun asko gogoratuko ditut beti.

Anekdota ren bat?

Bai, behin Bartzelonan jai baten nenguan emakumez jantzita eta guardia zibilaren aurrian korrika amaitu neban.

Plaentzitarrak....

Onenak gara. Nik asko maite dot herri hau eta jentia baina batzuk destierroa merezi dabe.

Bertso Begiz

*Gizurrak eta injusizia
jasan ezin dituala,
"si tu me dices ven" entzun eta
hor juango da berehala.
Baba gorri jalea,
badu mala letxea,
ta segi ezazu hala,
hogei urte barru bizitzeko
jangoiko jauna bezala.*

Eneko Beretxinaga

(Doinua: Iparragirre abila dela)



Jose Javier Soba

JAVIER ALONSO ZELAIETA
434 ZENB.KDL

**HORTZ
KLINIKA**
MEDIKU ESTOMATOLOGOIA



ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613

**GAZTELUPE
taberna**



tel: 943 75 20 81

Argazki zaharra



1986 xan Urkia Zelain Torero planian!

San Ferminetatik etorri eta hurrengo egunian, kuadrilako bazkarixa egin zeben Urkia Zelain. Bazkalostean, mantak hartu eta torero planean atera zuten argazkia; Jabier Garmendia, Alberto Errasti eta Pello Benitok.

Lehiaketa

Zein da argazkixan agertzen dan basarrixa?



Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke!!

DEITTU
943 75 13 04 ra

Aurreko irabazlea: Elene Garai
Erantzuna: Ernizketa

IRATXO
GOXOTEGIA

EGUNKARIA
ETKERA ERAMATEN DIZUGU
GEHIAGO ORDAINDU GABE

ETXABURUETA, 4
20590 SORALUZE
tfnoa: 943 75 13 20

Hnos. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Instalazioak Berrikuntzak

Kiru Muntaiak S.L.

Blas Elizburu Kortabarria

Sukalde, enpotratu eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Amillaga, 5 20750 Bergara
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 615 70 27 65

SAN ANDRES
Iturgintza

Iturgintza, Gasa, eta Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46

SUSTRAI COLINA **AMETS ARZALLUS**
bertsolariak



UNAI ELIZASU
gai jartzailearekin

VI. Bertso Afaria

Urriaren 31an 21:30etan
Armendi jatetxean

Prezioa:

Bazkide, ikasle eta langabetuak: 18€
Gainontzekoek: 20€

Eta afalostean...

Soraluzeko IV. Bertso Paper lehiaketako
sari banaketa

BarKatu

Bertso emanaldia
Sustrai Kolina eta Amets Arzallusen
eskutik

Txartelak aurrez erosi
Gila, Arrano eta Edurtza
edo deitu 943 751304 telefonora
Urriaren 27a baino lehen



behar duzun informazioa
astero zure etxean

BETE TXARTEL HAU ETA JASO 3 ALE DOAN

Eskeintza berezia

Bete aurreko alean
banatutako fitxa eta
jaso ARGIA dohain!!




eta



Euskarazko prentsaren
alde!



Fresaketa teknologia



SORALUCE S.Coop. • Osintxu auzoa • P.O.Box. 90 • E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel. +34 943 769076 • Fax: +34 943 765128 • Web: www.soraluce.com

GOZTAÑERRE

Gaztañerretako lengo Baba Txapelketa Azaroaren 8an

Izena emoteko epia: Urriaren 20arte. Izena emoteko tokixa: Pil-pilean-era jo.



Babak prestatzeko sua eta oinarrizko osagaiak Pil-pileanek jarriko ditu (ontzia norberak).

Sariak: 1. Txapela eta baserriko produktuen saskia.

2. Baserriko produktuen saskia.

3. Baserriko produktuen saskia. (Prestatutako babak herri bazkarian jango dira)

